


lidades de la delincuencia, como bien indica Ángel J. Martín Duque en su prólogo. En el caso de M. Beroiz sorprende la cantidad de tablas elaboradas, algunas de ellas de gran interés, como las número 39 y 40 sobre el tipo de artículos robados o la tabla 51 sobre el tiempo de estancia en prisión. Tal vez se le pueda achacar a M. Beroiz que es incapaz de explotar sus numerosas tablas y gráficos. Por ejemplo, del gráfico de la evolución del homicidio o de la pena de muerte se pueden obtener importantes conclusiones, pero no encontramos la más mínima mención a ello. Tampoco posee demasiado interés localizar en mapas el origen geográfico de los implicados en delitos de homicidio, agresión y robo, dado que fueron delitos ordinarios cometidos en todos los rincones del reino. De hecho, la lectura de dichos mapas no aporta ninguna conclusión. Más interesantes son los mapas sobre el origen geográfico de los alcaldes y los agentes de justicia.

Respecto a las conclusiones, a F. Segura se le podría exigir un mayor esfuerzo interpretativo capaz de extraer las numerosas ideas que surcan su texto, aunque su capacidad de síntesis está fuera de toda duda: recopila y explica los procesos normativos, vincula el reforzamiento del poder regio al desarrollo administrativo y a la fortaleza de la justicia y no olvida presentar las principales conclusiones sobre la delincuencia, asunto que en el apartado correspondiente no aparecían de forma sintetizada. En el caso de M. Beroiz las conclusiones, excesivamente parcas, se reducen a caracterizar la delincuencia navarra en base a varios aspectos: violenta, masculina, individualista y severamente castigada; es decir, unos rasgos comunes a la delincuencia de todos los rincones del Occidente medieval y que se inscriben dentro del modelo de delincuencia medieval, tal y como el autor reconoce; de ser ese el objetivo del trabajo no requería de 479 páginas para certificar lo que constituye una evidencia para cualquier investigador.

Roldán Jimeno Aranguren



BIDADOR, Joxemiel

Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra

Iruñea : Pamiela, 2004. - 405 p. ; 22 cm. - ISBN: 84-7681-428-3

Joxemiel Bidador egile ezaguna da euskal kulturaren alorrean egin dituen ikerketengatik. Garrantzi handikoak izan dira Joxe Agerre eta Alexander Tapia Perurena nafar idazleei buruz burutu dituen azterketak eta antologiak. Halaber, XX. mendeko nafar kazetari euskaldunei buruzko lan bat plazaratu du eta beste bat Sakanako idazleei buruz. Honetaz gainera, *Euskaldunon Egunkaria* itxiarazitakoan euskal literaturaz aritu zen *Nafarkaria* zeritzan gehigarrian (Tapiaren lanaz, gerra aurreko antzerkiaren egoeraz, Blas Alegriaz, Fernando Urkiatz, Eladio Espartazaz, Jenaro Xabier Vallejos josulagunari buruz, Iruñeko Udaleko sariketaz, eta beste hainbat gaiez jardun zuen hartan).

Egun, *Diario de Noticias* egunkarian idazten du. Kolaborazio horren emaitza emankorraren ondorioz, hor daude Baztango idazleei buruz argitaratu duen artikulu sorta: batean, XIX. mendeko idazleak ditu mintzagai (Nikolas Etxeberria Iturralde, Anastasio Etxeberri, Frantzizko Laphitz Arriada, Martin Goienetxe eta Damaso Etxeberria); beste batean, XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako idazleak (Damaso Legaz, Juan Krutz Goienetxe, Victorio Apeztegia eta Anaia Frantzisko Elizondokoa); hirugarrenean, berriz, XIX. mende bukaeran jaio arren beren lana XX. mendean argitaratu zutenak (Joseba Azkareta, Jose Tadeo Biela, Javier Lazkoz, Paulo Arozena, Blas Fagoaga, Luis Goñi, Jacinto Sanziñena, Juan Gortari).

Bidador Euskal Filologian lizentziatua da eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea. Iruñean lan egiten duen arren, urte luzez aritu da Tuteran euskara irakasle. Erriberan bizi zen garai haien ondorioa da Bidadorrek lurralde harekiko duen lotura eta atxikimendu handia, hainbat lanen sorburu izan dena; adibidez, Euskaltzaindiko *Euskera* aldizkarian Erriberako Iribarren, Peralta eta Garde euskaltzainen inguruan idatzitako artikulua, edo *Vascuence y Romance: Ebro-Garona, un espacio de comunicación* liburuan argitaraturikoa Erriberak euskararekin duen erlazioaz. Izan ere, *Vascuence y Romance* liburuaren hitzaurrean esaten den bezala ezinbesteko ikertzailea dugu “Nafarroako Erriberan XX. mendean eta egungo egunean euskarak bizi duen egoera ezagutzeko”, barnetik bizi izan baitu “Tuterako eskualdean dagoen euskal kultur giroa, bertan murgildu baita oso aspaldidanik”.

Soziolinguistikaren alorra ere jorratu du, euskararen egoera Errepublika aurreko eta Errepublika garaioko Iruñeko kazetaritzan ikertuz. *La Voz de Navarra* eta *Amayur* aldizkariak aztertu zituen horretarako. Bestalde, RIEV-en Euskararen Foru Legeak kazetaritzan izan duen eraginari buruzko artikulu bat argitaratu zuen, eta beste bat *Eleria: Euskal Herriko legelari aldizkaria*-n gai berberaren inguruan. Dialektologia ere jorratu du *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian Ultzamako eta Ollolibarko euskararen inguruan. Orobat, Zaraitzuko euskarari buruz beste artikulu bat argitaratu du Iruñeko prentsan.

Beraz, euskal literaturaren historiaren ikerketan erreferente bat izateaz gainera, soziolinguistikaren eta dialektologiaren alorretan ere bada, eta, hau gutxi balitz, euskal folkloreak eta etnografiaren alorretan ere bai. Izan ere, Bidadorrek *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* zenbait artikulu idatzi ditu dantzaren inguruan. Doktorego Tesia egiten ari da XVIII. eta XIX. mendeetako euskal literaturak dantzekin izan duen loturaz, dantzaria ere bai baita, Iruñeko San Lorenzo elizako dantza taldekoa, hain zuzen ere. *Dantzaren erreforma Euskal Herrian* saiakerarekin Bilboko Miguel de Unamuno saria eskuratu du berriki.

Egile berrientzako literatur lehiaketetan parte hartu izan du eta, behin eta berriz, saritua izaki: 1995ean Iruñeko Udalak antolatu zuen lehiaketan saritua izan zen Jeremias Erro, Juan Krutz Lakasta, Francisco Javier Mangado, Xabier Irujo, Mikel Alzuart, Patxi Larretxea eta Manuel Zinkunegi idazleekin batera. 1998an saritua izan zen, berriz ere, oraingo honetan ondoko idazle hauekin batera: Iñaki Irisarri, Reyes Iñitxeta, Maria Castillo Suarez, Angel Erro, Esteban Arozena eta Julen Zelai. Euskal Idazleen Elkarteko kidea da eta elkarte honek Iruñean aurten egin behar duen *Galeusca* literatur ospakizunaren antolatzaileetarikoa bat. Literatur topaketa hau oso hurbildik ezagutzen du; izan ere, 2003koan “Euskararen memoria Nafarroan 36ko gerran: Larrekoren gerla urte gezur urte” komunikazioa irakurri zuen.

Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra lan artatsuaren egilea da, talde batentzako lan nekagarria izan zitekeena, lagun bakar batek aiseki eta gogo onez burutua.

NACHT UND NEBEL

Aingeru Epaltzak liburuaren aitzinsolasean dioenez, gure literaturak, bere hasta-penetatik, katakonbaren eta klandestinitatearen estigma izan duela dirudi. Bernard Etxepare Paueko kartzelan preso egon zen, Juan de Amendux Tafallakoan. Ziegen hezetasunaren eta kiratsaren artean euskal literaturaren lehenengo urratsak ematen hasi ginen. Gure egileak bizirik lurperaturik, hobiraturik zeudelarik, sormen lana burutzen hasi ziren. Honelaxe, baldintza hauetan, idatziak izan ziren euskaraz argitaraturiko lehenengo liburua eta Goi Nafarrerazko lehenengo olerkia, *Linguae Vasconum Primitiae* eta *Hemen naça orçirik*, hurrenez hurren.

Egileak, Zerbantes bezala, kartzelan izanak; lanak, On Kixote bezala, kartzelan sortuak; badu, bai, euskal literaturak jite kixotesko nabarmena, korrontearen aurka igeri eginez garatua eta erdietsia. Euskal idazlea eta kartzela, eta zigorra, eta bakar-dadea, eta ahanztura, eta hartara kondenatua. Eta euskal hizkuntzari, kasurik hobereanean, ogia eta ura, eta besterik ez. Epaltzak gogoratzen duenez, arrazoi politiko, erlijiozko edo gizarte mailakoak direla medio, betiko galdu diren katiximak, kaierrak eta eskuizkribuak oso present daude gure literaturan. Zalgizeko jaunaren bezalako euskal poeta goren ezezagunak bizi-bizirik daude euskaldunen alegiazko orotzapen genetikoan. Beste batzuentzat, berriz, ez dira inoiz ere existitu.

Egiatzki, asmakeria hutsa ez ote den pentsa liteke, geure buruaz pena har dezagun argudio aspergarri eta biktimista. Hor dugu, ordea, Lazarragaren kasua. Fantasiatzko liburu batetik ateratako istorioa dirudien arren, ez omen da hala. Azoka batean aurkitu zuten beste liburu zahar askoren artean galduta. Euskal liburuak eta liburuak galdu dira edo galarazi dituzte, bere zentzurik etimologikoenean eta berrienean ere. Eltsoko Santxoren katixima galdu zen eta galdu zela badakigu. Zalantzarik gabe. Gainera, Bidadorrek galdutako ale guztien berri ematen du. Hari esker badakigu Eltsokoa benetan haserretu zela Zentronikoko apaizari bidalitako 444 katiximak Tuteran, helbidera iritsi gabe, erdi galduta gelditu zirela jakin zuelarik. Hor, nonbait, noizbait ale guztiak galduko zirelako seinale izan genezake apika. Epaltzak esku beltz baten lana dirudikeela dio, aurkako patuarena, zoritxarrarena, halabehar gaiztoarena:

“Como si una mano negra secular se hubiera empeñado en aplicar un particular *Nacht und Nebel* –noche y niebla– tanto para nuestra literatura, como para nuestra cultura en general”.

Horregatik, liburuaren aitzinsolasean Nafar Literaturaren Historia mainguren eta errenaren iruzurra salatzen du Epaltzak. Erdal graziaz betea, euskal mantxarrik gabea. Literaturan aipaturikoak balizko iruzurrak dira gehienetan, idazleen asmakizunak, ziur aski gertatu ez, baina gerta zitezkeen erdeinu eta gutxiesteak. Nafarroako Unibertsitateak argitaraturiko Nafar Literaturaren Historia, ordea, destain garbia izan da. Egun, gaur egun, Nafar Literaturaz aritzea eta euskaldun gehienak tintontzian uztea ez da zilegi. Informazio nahikoa dago informatua egon nahi duenarentzat. Bidadorren liburua argitaratu da dagoeneko eta besteen hutsunearen neurri ikaragarria agerian utzi du, argi eta garbi. Datuak eta datuak ematen dira nafar idazle euskaldunei buruz, eta Bidadorrek ematen duen datu bakoitzak, nimiñoenak ere, handitzen eta handitzen du nafar literaturan adituak omen direnek egindako akatsaren larritasuna.

Argia aldizkarian 1999ko abenduaren 5ean Epaltzak argitaraturiko artikulua ekartzen du gogora Bidadorrek. Artikulu hartan Joan Mari Torrealdaireren «Euskal ida-

zleak gaur» (*Jakin*, 1977) monografia luzea aipatu eta egile horri Nafarroaren presentzia euskal literaturan “barregarri” iruditzen zitzaiola aitortzen da. Haren kariatz, hauxe idatzi zuen Epaltzak:

“Hogei urte geroago, egile berak eginiko azterketa ez laburragoan («Euskal kultura gaur», *Jakin*, 1997), gure letren eremuan herrialde bakoitzak duen pisuaren bilakaera neurterakoan, garbi ageri da Nafarroa hazi dela gehien, ikuspegi erlatibo batetik begiraturata: hogei urtetan halako bi egin du”.

Artikulu berean, *Nafarroako Euskal Literatura Garaikidea* izenburupeko ikastaroa aipatzen da, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Euskal Idazleen Elkartearekin elkarlanean antolatu zuena (Epaltzak berak eta nik neronek –zilegi bekit– koordinaturikoa). Ikastaroa hiru urtez luzatu zen, berrogei bat ikasleekin, eta ikastaroari beste hiru urtetan hitzaldi ziklo batek segida eman zion, Euskal Idazleen Elkarteko “Idazleekin Solasean” programaren barruan, ziklo hura ere gure ikasgaiari estuki lotuta. Andolin Eguskitzak hasiera eman zien ikastaroei, eta idazleak eta idazleak iragan ziren Unibertsitateko geletatik (Epaltza, Alonso, Rikarte, Muñoz, Olasagarre, Patziku, Lizarralde, Zabaletarrak –biak, Iñaki eta Patxi–, Josetxo Azkona, Satrustegi, Itxaro Borda, Antton Luku eta beste anitz idazle).

Epaltzak esandakoa bere eginez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikastaroaren garrantzia azpimarratzen du Bidadorrek:

“desde el momento en que la Universidad Pública de Navarra organizaba el curso «Nafarroako Euskal Literatura Garaikidea» ya no éramos irrisorios, ez gara *gehiago barregarri*”.

Nafarroan euskal literatura inoiz baino osasuntsuago dago eta aztergai dugun liburu honetan, Foru Erkidegoko berariazko euskal literaturaz ari den lehenengo eskuliburuan, osasun horren adierazleak, tituluak eta idazleak erakusten dira.

ERDARAZ IDATZITAKO EUSKAL LIBURU BATEN ZERGATIKOAK

Joxemiel Bidadorrekin izan dudana epistola-erlazioaren ondorioz bere liburuaren sorreraren nondik norakoak lehenengo pertsonan ezagutu ahal izan ditut, bai eta jakin ere liburuaren erdaraz idatzi izana ez dela kasualitate hutsa edo euskarari eginiko muzina izan, gogoan luze ibilitako erabaki euskaltzalea baizik. Egilea euskal literatura erdalduneengana hurbiltzeko xedeetan zegoen: “nire liburuaren egin nuenean beste zubi bat eraiki nahi nuen bi komunitateen artean, ezagut gaitzaten hobeto”. Baina lortu ez ote zuen beldur agertu da anitzetan: “bete nuen neure ustez egin beharreko lan beharrezko bat, eta erdal munduak ez digu erantzun”. Pako Aristik *Berria* egunkarian argitaratu «Galeraren teoria» artikuluan idatzitakoarekin bat datorrela dio, alegia, erdaldunek benetan ez dakitela “zenbat galtzen duten gurea ez ezagutuz”. Batzuetan, erdaldun kulturadunak informazio nahikorik ez izan eta horregatik gure literaturaz gauza handirik ez daki; baina Bidadorren iritziz (“eta hori ere Aristik badio”), beste batzuetan nahi haina informazio izan eta, halere, bere horretan dirau, jakin nahi ez baitu. Izan ere, erdal irakurleek euskal liburuaren itzulpenei egin dieten harrera ez da horren beroa izan: “Noizdanik daukagu Epaltzaren «Agua turbia» itzulia? Noiz egin da horren analisisa erdal inguruetan?”, kexu da Bidador.

Idazlearen asmo ona aintzat hartzekoa da. Baina, bere kexua erabateko irudikeria ez dela egiaztatzea erdiragarria da euskara maite dugun guztiontzat, are gehiago erdaldunen begien aurrean euskaldunak ikusgai jartzeko erdaraz idaztera deliberatu

duen idazle euskaldun batentzat, eta, oraindik ere areago, erdaraz idaztea euskara traditza delako mamuarekin egunero borrokatu behar izan duen horrentzat:

“Baloragarria da, niketz behintzat, ase naiz neure mamuekin, bete baitut ene kontzientzia afera hura (pentsa bedi urtetan *Nafarkarian* euskaraz argitaratzen egon ostean, *Diario de Noticias* hasi nintzelarik, nire aita tematiak erdaraz idatz nezan nirea irakurtu gabe jarraitu zuen)”.

Bekatu egin ondoan kontzientzia alhatzen ez zaiolarik, ausikiak besteengandik jaso izan ditu: “izan ere, jaso dudan kritikarik usuena erdaraz egin izana baita, ezer gutxi edukiaz denez bezanbatean”. Nafar idazle euskaldunak isilean gorde dituen Nafarroako euskal literaturaren historia erdaraz idatzi da. Zilegi da, beraz, erdaraz aritzea nafar literaturaren inguruan, erdaraz idatzi den nafar literaturaren historiari erantzuteko eta euskaraz ez dakiten nafar guztiek izan bagarela jakin dezaten.

LIBURUA ARGITARATU AURRETIKO IKERKETA EGOERA ETA ERABILITAKO ITURRIAK

Dena den, euskal idazleen isolamendua eta haiekiko ikusezintasuna ez zaie bakarrik unibertsitateko nafar literaturaren historiazale erdaldunei leporatu behar. Bidador gehien mintzen duena ez da haiengandik datorren ahanztura, euskaldunengandik datorrena baizik; ez erdaldunen ezjakintasuna, euskaldunena baizik: “gure egoera periferikoa dela eta, Gipuzkoako zentrisismoak ez gaitu sobera kontuan izan”, eta frogar bezala UNEDek 2000 urtean argitaratu zuen *Historia de la Literatura Vasca* liburu mardula gogora ekartzen du “non Larreko ez den aipatzen”. Akats, hutsune eta gabezia mingarri hauek guztiak konpontzera dator Bidadorren liburu.

Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra liburu ez da aurrekoek ahanzten. Nafar Literaturaz aritu ziren beste liburu eta artikulua askoren ondorengoa da. Haiengandik edan du eta haiek gogora ekarri nahi ditu. Erabilitako bibliografiari begirada azkar bat emanez, berehalaxe konturatzen gara zeintzuk diren Bidadorrek gogokoen dituen maisuak, haien liburu anitz zerrendatzen baititu, gaineko aldean era guttiz nabarmenean. Nikolas Alzola Gerediaga, Aingeru Irigarai, Frantzisko Ondarra eta Jose María Satrustegi dira Bidadorren Bibliografian liburu eta artikulua gehien biltzen dituzten egileak. Honek argi eta garbi erakusten du norantz lerratuko den liburu.

Bibliografian bertan, Nafar Literatura aztertu dutenen lanen berri ematen da: Antonio Pérez Goienaren *Ensayo de bibliografía navarra* liburuaren bederatzi ale (1945-1964, Burgos), Manuel Iribarren Paternainen *Escritores navarros de ayer y de hoy* (1970, Gómez), Jose Angel Irigarainen *Euskera eta Nafarroa* (1973, Arantzadi), José María Corellaren *Historia de la literatura navarra: ensayo para una obra literaria del viejo reino* (1973, Iruñea), Fray Luis Villasante Kortabitarteren “La aportación navarra a la literatura vasca” (1976, *FLV*, 24, 405-417), Juan Mari Torrealdairen “Nafarroako euskal idazleak” (1977, *Jakin*, 6, 24-31), Aingeru Irigarainen “Escritores euskéricos de Navarra” (1979, *BAP*, 35 217-228), Txema Larrea Muxikaren eta Pedro Diez de Ultzurrunen *Nafarroako euskal idazleak I* (1987, Pamiela; eta Txema Larrea Muxikak 1995ean idatzi zuen *Nafarroako euskal idazleak II*), Fernando González Olléren *Introducción a la historia literaria de Navarra* (1989, Nafarroako Gobernu), Blanca Urmeneta Purroy-ren *Navarra ante el vascuence: actitudes y actuaciones (1876-1919)* (1996, Nafarroako Gobernu), Jose Maria Jimeno Jurioren *Navarra: historia del euskara* (1997, Txalaparta), Xabier Erize Etxegarainen *Nafarroako euskararen historia soziolingüística 1863-1936* (1997, Nafarroako Gobernu), Alberto Barandiaranen

Iruñeko udalaren literatur lehiaketak (1882-1928) (1999, Iruñeko Udala), Casimiro Pérez Aguirreren eta Vidal Pérez de Villarrealen *Escritores de la provincia capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón* (2001, Iruñea, Kaputxinoen Kuria Probintziala) eta Joxemiel Bidadorren beraren *Euskara Iruñeko kazetaritzan I, II* (2001-03, Iruñeko Udala).

LANAREN EGITURA

Liburua hiru zatitan banatuta dago. Lehenengo partean Nafarroako euskal literaturaren hasierak aztertzen dira hiru bloke tematikotan (lehenengoan XVI. eta XVII. mendeetako euskal literatura, bigarrenean XVIII. mendekoa eta, hirugarrenean, XIX. ekoa). Atal honi 57 orrialde dagozkio. Bestalde, liburuaren bigarren zatian Euskal Pizkundeak Nafarroan izan zuen eragina aztertzen da, oraingoan ere hiru bloke tematikoetan (lehenengoan, euskaroen garaiaz ari da, 1877. urtetik XX. mendearen hasierara arte; bigarrenean, 1900. urtetik 1925. urtera arteko egoeraz; eta, hirugarrenean, 1925etik 1936rako garaiaz, non gerra aurreko loratze literarioaz mintzo baitzaigu Bidador). Atal honi 147 orrialde eskeini dizkio. Bukatzeko, liburuaren hirugarren zatian Francoren garaiko bigarren euskal pizkundeaz eta literatura garaiki-deaz ari da, alegia, 1940. urtetik gaur egun artekoaz. Atal honi 117 orrialde ematen zaizkio. Atalez atal aztertzen badugu, bitxia da nafar euskal literaturaren ia historia osoa 57 orritara bildu daitekeela egiaztatzea, baina XX. mendekoa azaltzeko, gauza bera egiteko, aurrekoaren orrialde kopurua halako bost behar dugula. Benetan pozgarri eta adierazgarria.

Liburuaren bukaeran bi eranskin gaineratu dira: lehenbizikoa, egileen eta lanen aurkibideari eta bibliografiari buruzkoa, eta, bigarrena, Nafarroan antolatu diren sariei buruzkoa: Iruñeko Udal Aurrezki Kutxak antolatzen zuen *Xalbador* Saria, Iruñeko Udaleko literatur lehiaketak eta Nafarroako Bertsolari Txapelketarenak. Liburuari aurkibide orokorrak bukaera ematen dio.

LIBURUAREN EDUKIA ETA EKARPEN AIPAGARRIENAK

Liburuaren lehenengo zatian, XVI. eta XVII. mendeetako egoera aztertzen delarik, ondoko lan entzutetsuak aipatzen dira beste askoren artean: Santxo de Eltsoren katixima galdua, Juan Amenduxe koaren elegia, Utergako abadearen liburuak eta Axularren *Gero* liburua. XVIII. mendeari dagokionez, ondoko lanak aipatzen dira: Perotxegiren apologiak, Arakistainen hiztegi erronkariarra eta Joakin Lizarraga Elkanokoaren lanak. Orobat, liburuaren atal honetan, Kardaberazek eta Mendiburuk Nafarroako literaturan izan duten eragina aztertzen da, eta, halaber, atal honetako azken epigrafean, Mogeldarrek Milagro herriarekin zuten erlazioaren berri ematen du; berri bitxi bezain ezezaguna.

Liburuaren lehenengo zatiaren azken partean, XIX. mendeko egoera aztertzen da, bereziki, erlijio-ordenen ekarpena eta Bidadorrek parrokia-literatura deitzen duena; honen adibide bezala, egileak ondoko lanak aipatzen ditu: Juan Nikolas Etxeberria Iturralderean *Kristau-doktrina Aita Gaspar Astetek erderaz eskribitua eta orai eskuaraz publikatzen duena, zenbait gauza aumentaturik, Baztango balleko parroko batek kristau fielen instrukzioarean deseyuz* (Iruñea, 1826). Orobat, Dicastillon aurkitutako 1805eko sermoi bat Lizarrako euskaraz idatzia; Iberoko abade Juan Bautista Azpirozaren eskuizkribua; Makirriango maisu Juan Francisco Goñik 1828ko kristau-ikasbidearen itzulpena; eta, hauekin batera, beste izen batzuk: Anastasio Etxeberri Santxolur, Francisco Etxeberria, Martin Goienetxe, Juan Bautista Arretxea eta beste anitz.

Honetaz gainera, José Yanguas y Miranda, Tuterako historiagile ospetsua, aipatzen da bere lan batean testu bat euskaraz txertatu zuelako. Izan ere, Yanguas y Miranda ezaguna bada, *Diccionario de antigüedades de Navarra* (1840) hiztegiarengatik izan da, eta ez, presezki, bere euskaltzaletasunarengatik. Aitzitik, euskara gaitzes-ten omen zuela dirudi, Bidadorrek berak gogoratzen digun bezala. Horregatik, garrantzi handiagokoa da aipamen hau, estreinako (eta azken) aldiz egin baitzuen. Euskaraz egindako sorginkeria baten konjuru batez ari gara. Sorgin zahar batek erabili omen zuen Juan Lanas bere ziegatik ateko sarrailaren zulotik atera eta askatzeko.

Liburuaren lehenengo zati honetan San Frantzisko Xabierrekoa, Nafarroako santu euskalduna, aipatzen da, batetik, hain zuzen ere horregatik, hots, euskalduna izateagatik, eta, bestetik, hainbat olerkiren eta libururen inspirazio iturri izateagatik. Santuarekin batera, beste batzuk ere aipatzen dira: Perico de Alejandria Etsain bertsolaria, tornuko umea, goitizenez, “Arrotxapeko urretxindorra”, eta Luis Luziano Bonaparte Printzeak izan zituen nafar laguntzaile guztiak (Etxenike, Uhalde Maio, Sanper Elizari, Juanko Eseberri eta beste anitz, betiere Xabier Erizek egindako sailka- penari jarraikiz).

Datuak eta datuak biltzen dira liburu honetara. Bidadorrek Nafarroan euskaraz idatzi, aipatu edo itzuli diren liburu guztiak ezagutzen dituela dirudike. Bat ere ihes egiten ez zaiola. Lan guztiak, tipienak ere, aipatzen dira hemen. Zenbait lan guttiz bitxiak dira, batere entzunak. Euskaraz idatzia edo euskarara ekarria izan bada, orrialde hauetan aurkituko dugu, ondoko itzulpenaren kasuan bezala, izenburu luzexka eta, egungo ikuspegitik, ohizkanpokoa duen erlezainen gida batena: *Erle gobernatzalleen gidariya edo erleak gobernatzeko modua. Gende guzientzat txit modu egokian eta klaro paratua, zeñean ipintzen da eakinde edo exortu labur bat, España onetako dezakeen guziak para ditzaten erlategiak gende komunaren eta partikularren probetxurako. Aita fr. Joaquín de Santa Bárbara karmelitak zazpi parte edo zatian gaztelaniaz argitara emana, ipiñi du euskeraz probintzia Gipuzkoako euskaldun batek. Edo, bestela esanda: Guía de Colmeneros o tratado práctico de abejas, acomodado por su estilo y claridad a toda especie de gentes con una breve exhortación a fin de que los pudientes de esta península pongan abejas para utilidad del común y particulares* (1820).

Bigarren zatiko lehenengo bloke tematikoan, euskaroen garaia (“esnatzea”) aztertzen da. Arturo Campión (Iruñea, 1854-1937), bere lana (“Orreaga” olerkiari berebiziko garrantzia ematen zaio), bere kolaboratzaileak (Bidankozeko Mariano Mendigatxa haien artean, hau ere Azkueren informatzailea) eta berak sostengaturiko “Asociación Euskara de Navarra” aipatzen dira. Halaber, atal honetan, Elkarteak argitaraturiko *Euskara* aldizkaria eta, Abbadieren laguntzaz, Campiónek bultzaturiko “Lore Jokoak” aztertzen dira. Honen berri zehatza ematen da liburuan, bai eta gogoratu ere 1878an Elizondon egin zirela, eta hartan Felipe Arrese Beitia irabazle gertatu zela. Euskaltzaindiaren olerki sariak poeta bizkaitar honen izena darama. Elkartearen lanaz gainera, elkartetik kanpo zeuden beste egile batzuk aipatzen ditu Bidadorrek, hala nola, Julien Vinson, Serafin Baroja (Pío Barojaren aita), Jose Maria Lakoizketa, Jimeno Egurbide, Julián Gayarre, Eusebio López, Victoriano Uitz eta erlijio gaiak jorratu zituzten zenbait idazle.

Bigarren zatiko bigarren bloke tematikoan, XX. mendearen hasieratik 1925. urtera arteko egoera aztertzen da. Atal honetan, Nafarroan *Euskal Eснаlea* Elkarteak izan zuen ibilbidea aztertzen da. Elkarte honetako bazkideen artean izen ospetsuak aurkitzen ditugu, horietako asko lehen *Nafarroako Euskara Elkarte*an izandakoak: Arturo Campión lehendakariarekin batera, Gregorio Mujika, idazkaria, eta Estanislao Aranzadi, Hermilio Oloritz, Fermin Iñarra, Francisco Ansoleaga, Enrike Zubiri *Manezaundi*, Cunchillos eta beste euskaltzale eta idazle asko. Atal honetan

XX. mende hasi berriaren literatur lehiaketak aipatzen dira eta, orobat, euskaraz aritu zirenen nafar kazetariak eta euskararen trataera orduko prentsan idatzian (*Napartarra* –Ataulfo Urmeneta, Jose Zalba, Salvador Garijo eta Jose Agerre izan ziren Nafarroako jeltzaleen lehenengo astekariaren zuzendariak, eta Pablo Fermin Irigarai *Larreko* izan zuten kolaboratzaile nagusia–, *La Tradición Navarra* –Larrekoren lehenengo artikulua argitara eman zituen Alderdi Integristaren ahotsa–, *El Eco de Navarra* –“Eguneroko berriak” sail euskaldunarekin–, *El Pensamiento Navarro* –karlisten kazeta–, *Diario de Navarra* –eta bere “Euskarazko saila”–).

Atal berean Euskaltzaindiaren sorreraren garaian Akademian sartu ziren nafarrak aipatzen dira; euskaltzain osoak: Arturo Campión, lehendakariordea, eta, hasiera batean, Jose Agerre, eta Miguel Olasagarre “Damaso Intzakoa”, gero; euskaltzain urgazleak: *Larreko*, Teodoro Arburua, Eusebio Etxalarkoa, Zelestino Kaparrosokoa, eta Gipuzkoan jaio arren nafar bihotza zuen Nikolas Ormaetxea, *Orixe*. Bloke honetan ere Resurrección María de Azkuek Nafarroan egin zituen ikerketak aipatzen dira. Akademiako lehendakariak *Euskalerraren jakintza* kantutegia, *Erizkizundi Irukoitzea* galdetegia eta bere hiztegi ospetsua burutu ahal izateko nafar askoren laguntza izan zuen, haien artean Juan Kruz Goienetxe eta Juan Bautista Gorosurreta, hiztegi gintzan, eta Polikarpo Iraizozkoa, Eusebio Etxalarkoa eta Damaso Intzakoa, hirurak kaputxinoak, *Erizkizundi Irukoitzarako* datuak biltzeko lanean. Atal honi bukaera emateko *Zeruko Argia* aldizkariaren sorrera aztertzen da, hau ere Aita Kaputxinoen eskutik. Izan ere, Damaso Intzakoa, Euskaltzaindikoa, eta Buenaventura Oierregikoa, *Euskal Esnaleak* aldizkari kolaboratzailea, *Zeruko Argia* aldizkariaren bultzatzaile nagusiak izan ziren. Orobat, Lekarozko Kaputxinoen garrantzia euskararen irakaskuntzaren alorrean azpimarratzen du Bidadorrek, baina, oraingoan, Iruñeko Eskolapioekin lehian.

Bigarren zati honetako hirugarren bloke tematikoan gerra aurreko egoera aztertzen da, 1925. urtetik 1936. urtera arte. Berriro ere Arturo Campión dugu atal honen protagonista, 1925ean nafar euskaltzale honek beste elkarte bat sortu zuelako *Euskararen Adiskideak* izenarekin. Elkarteari esker literatur lehiaketak eta Lore Jokoak indartu ziren berriro. Euskal Pizkundeak ekarritako “Euskal Antzerki Berriaren” –Patri Urkizuren hitzetan– eragina Nafarroara hedatu zen, egia esan, ez oso indar handiz. Bidadorren liburuan eragin hau aztertzen da eta idazle askoren ekarpena erakutsi ere bai. Hauek dira Bidadorrek aipatzen dituenak: Urkia arbuzarra, Lakuntzako apaiza zen Blas Alegria, Eladio Espartza lesakarra, Pablo Artxanko *Irunxeme* eta Alexander Tapia Perurena, hau ere *Irunxeme*, eta olerkaria izateagatik askoz ere ezagunagoa dena. Bukatzeko, gerra aurreko bertsolarismoaren historiak atal honi amaiera ematen dio.

Baina, Bidadorren ekarpen pertsonalenak liburuaren hirugarren zatian aurkituko ditugu, hirugarren zatiko bigarren bloke tematikoan, hain zuzen ere, “La puesta de largo (1980-2000)” azpititulu peko atalean. Han esaten denak, oraindik idazteke dagoen euskal literaturaren garaikidearen historiaren kapitulu garrantzitsu bat osatzen du, Nafarroak azken urte hauetan euskal kulturari eman dion hoberena han biltzen baita. Nafarroak Etxeparerekin eta Axularrekin euskal literaturaren bultzia oso goiz hartu bazuen ere, handik, herabeti, jeitsi zen berehalaxe. Azken kapitulu honetan argi erakusten da nola nafarrak igo diren, berriz ere, inoiz galdu behar izan ez zuten bultzi hartara.

Liburuaren hirugarren zatian Bidadorrek deitzen duen Bigarren Literatur Berpizkundearen garaia aztertzen da. Bigarren loraldi horren oinarriak Francoren diktaduraren urte latzenetan ezartzen hasten dira. Euskaltzaindian nafar akademiko berriak sartzen dira (euskaltzain oso: Aingeru Irigarai 1941ean, *Orixe* 1957an, Jose Maria Satrustegi 1963an, Polikarpo Iraizozkoa 1968an; eta urgazleen artean, besteak beste, Maria Paz Ziganda 1951n, Jose Maria Iribarren 1955ean, Pedro Diez de Ultzurrun Etxarte 1958an, Mariano Izeta 1961ean, Marcelino Garde 1964an,

Bernardo Estornés Lasa 1966an, Miguel Javier Urmeneta 1966an, José Estornés Lasa 1969an, eta beste anitz). Atal honetan, *Euzko Gogoa*, *Egan* eta *Olerti* aldizkarietan parte hartu zutenen izenak aipatzen dira, eta, orobat, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren eta *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskal gehigarriaren sorreran egon zirenenak. Bertsolaritzari ere berebiziko garrantzia ematen dio eta orduko lehiaketen berri ematen du Bidadorrek. Atalari bukaera emateko “Iruñako Euskalerraren Lagunak” elkartearen berri ematen du. Bertako bazkideen artean, Carlos Clavería, Jose Agerre, Aingeru Irigarai, Jose Miguel Barandiaran, Leoncio Urabaien, José Estornés, Miguel Javier Urmeneta, eta beste izen ospetsu asko aurkituko ditugu. Elkarte honi zor diogu, Jose Antonio Mugertzaren huts egindako saiakeraren ondotik, gerra ondoren izan den lehenengo ikastola nafarraren sorrera.

Baina, esan bezala, libururik zatirik interesgarriena, hirugarren zatiko bigarren bloke tematikoarena dateke, ikertzen duen garaia oso gutxi aztertua izan baita; apika, beharrezko distantziarik ez dagoelako. Atal honen sarreran Patxi Zabaleta, Mikel Arregi, Iñaki Zabaleta eta Jose Angel Irigarai imaz aipatu eta Nafarroan trantsizio garaian egin den poesia sozialaren adierazletzat hartzen dira. *Korrok* aldizkaria aztertzen da, bai eta azpimarratu ere bere garrantzia orduko mugimendu literarioan eta hainbat eta hainbat idazlerengan, Joakin Balentzia, Mikel Bujanda, Xabier Diaz Esarte, Txiki Idoate, Gotzone Sestorain, Xabier Zabaltza, eta abarregan.

Liburuaren kontrazalean, argazki anitzekin egindako fotokonposaketa batean, idazle garaikide asko ikusten ditugu Pedro de Axularrekin batera: Joxe Angel Irigarai, Aingeru Epaltza, Inma Errea, Pello Lizarralde, Isidro Rikarte, Felipe Rius, Jon Alonso, Aingeru Irigarai, Bixente Serrano Izko, Mikel Taberna, Castillo Suarez, Alberto Barandiaran, Josetxo Azkona, Patziku Perurena, Gorka Trintxerpe (Patxi Zabaleta), Alberto Ladrón, Iñaki Zabaleta eta beste anitz eta anitz idazle. Liburuaren barneko orrialdeetan, *Korrok* aldizkariaren parte hartu zutenen izenak irakur ditzakegu eta *Korrok* aldizkariaren ondorengo aldizkarietan (Auzolan liburudendako *Pamiela*, *Naparthoid*, *Garziarena* eta *Mazzantini*) idatzi zutenenak ere, eta, orobat, bortxaz itxi zuten *Euskaldunon Egunkaria* kazetaren *Nafarkaria* gehigarrian, edo *Nafarroa Gaur*, *Navarra Hoy* kazetaren gehigarrian, edo, azken urte hauetan kaleratu den *Nabarra* aldizkariaren aritu zirenenak ere.

Iruñeko *Txantrean Auzolan* eta *Aldapa*, Baztan-Malerreka-Bortziriko *Ttipi-ttapa*, Araitz-Betelu-Larraun-Lekunberriko *Mailope*, Sakanako *Guaixe* eta *Laisterka*, Burlatako *Axular*, Imotz-Basaburua-Ultzamako *Pulunpe*, Leitzako *Marmari*, Arbizuko *Oihan ederra*, Iruñeko Karrikiri elkarteko *Karrika*, Erroko eta Aezkoako *Ai ene!*, eta, oro har, erdaraz egon arren, euskarari tartea egiten dioten Pirinioko *Mendixut*, Tafallako *La Voz de la Merindad* edo Nafarroako Zonalde Mistoko *Ze berri?* aldizkariak Nafarroako euskal idazle askoren bozgorailuak izan dira. Haien sehaskak eta kabiak. Joxemiel Bidadorrek berak aldizkari hauetan bertan idatzi du. Haietan aurkituko ditugu Nafarroako euskal kultur giroan ezagunak diren izenak: Reyes Ilintxeta, Kike Diez de Ultzurrun, Juan Carlos Etxegoien, Juan Kruz Lakasta, Patxi Larrion, Patxi Uharte, Juantxo Urdirotz, Santi Begiristain, Eduardo Gil Bera, “Martikorena” (Aingeru Epaltzaren goitizena *Nafarroa Gaur* gehigarriaren garaietan). *Euskalerrria Irratia*-ren uhinetan entzun ditzakegu hemengo egile batzuen ahotsak, Mikel Bujanda esatariaren zuzendaritzapean, hau ere idazle.

Bidadorren liburua irakurtzen ari garelarik, jakinminez gaude, egile orojakilea baita. Hemen ez dagoena, izan, ez da, datu guztiak bildu baititu. Nafarroako Euskal Literaturaren Historia egin baino gehiago, Nafarroako Euskal Kulturaren Historia idatzi du berak. Idazleez gainera, unibertsitateko irakasleak, euskaltzainak, ikertzaileak, kultura alorreko mezenas eta beste asko aipatzen dira. Zerrenda luza zitekeen, euskal kulturaren alorrean ari den baten bat kanpo gelditu delako, baina, jakina, liburua

askoz ere laburragoa ere egin zezakeen bakarrik idazleetara mugatu izan balitz, eta hagitzez laburrago idazle hoberenetara lerratuz gero. Aitzitik, lehenengo mailako idazleak ditugu, baina bigarren, hirugarren eta laugarren errokoak ere. Guztiak daude hemen eta guztiei begirune handia erakusten die Bidadorrek. Nafarroan jite eta kalitate guztietako idazleak egotea pozgarria da, gure literatura osasuntsu dagoelako seinale. Eta Bidador egitate horretaz harro dagoela dirudi.

Egileak kritika plazan jarri du bere burua, eta, orobat, autokritika egiten badaki:

“edukiaz denez bezanbatean, nire liburuak baditu gabezia eta akats zenbait. Baina lehenbiziko mugarri bat izan da, eta zinez uste dut segida izanen duela, nik egina ez dakit, baina beste norbaitek egina seguru. Zer falta da beraz? Testu antologia iruzkindua, azken urteetako lanen analisi sakona, eta azkenik, Euskal Herriaren kontestuan berkokatu. Ezin da ulertu, esaterako, XVIII. mendeko literatura nafarra Larramendirik gabe, baina ezin da ukatu Loiola ondoan Iruñeko konbentuaren garrantzia”.

Ez, ezin da ukatu. Gure komentua handitzen ari da egunez egun. Gure oinarria sendoa da, oso. Eta hori Bidadorren lanari esker hagitzez argiago ikusi ahal izan dugu. Izan ere, egilearen ustez egiteke dagoen lan hori berak egin beharko duela argi eta garbi nabaritzen da, gai honetan duen maisutza aski eta sobera erakutsi baitu.

Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte



ELOSEGI, Xabier

Sara, etxeak eta deiturak lau mendez (XVI-XIX)

Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2005. - 437 or. ; 24 cm.
- (Lankidetzan ; 31). - ISBN: 84-8419-891-X

INTRODUCCIÓN

Lejos de lo que pudiera desprenderse del título del libro *Sara, etxeak eta deiturak lau mendez (XVI-XIX)* (Sara, casas y apellidos a lo largo de cuatro siglos [XVI-XIX]), la obra que nos ocupa no es una investigación de carácter lingüístico o filológico e incluso podría decirse, como se verá más adelante, que no son precisamente los lingüistas los que están llamados a sacar un mayor provecho de este trabajo.

En realidad es una investigación sobre la historia de Sara basada en la observación de la evolución de sus casas y sus propietarios, una visión de la evolución social vivida en esta localidad durante cuatro siglos.

Es un trabajo original que permite estudiar desde distintos puntos de vista la evolución de la casa: la verdadera unidad económica de la Vasconia rural durante siglos, motor económico del país, marco en el que se desarrollaba toda la vida familiar y fuente de la mayor parte de nuestros apellidos.